

Donostia, 2022ko maiatzaren 6a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, ZEZENEI BURUZKO HERRI-KONTSULTA

Aitzole Araneta Elkarrekin Donostia udal talde politikoko bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO HAU AURKEZTEN DU, UDALBATZAN EZTABAIDA DADIN, zezenei buruzko herri-kontsulta dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Urteak joan urteak etorri, badago eztabaida bat oraindik bizirik dagoena Donostiako gizartean: ea zezenketa tradizionalak oraindik egin behar diren gure hirian.

Donostia Antitaurina Orain plataformak aurkeztutako 9.000 sinadura baino gehiago bilduta, eta herritarren kontsulten udal-araudiak babestuta, Donostiako Udalak 2017ko otsailan erreferendum bat egitea aurreikusi zuen. Udalak antolatu behar zuen kontsultak izaera loteslerik ez bazuen ere, Eneko Goia alkateak hitzeman zuen auzotarrek hautetsontzietan emandako hitza errespetatuko zuela.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiak kautelaz bertan behera utzi zuen erreferenduma, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, Estatuko Abokatzak hala eskatuta, baliogabetu egin zuen herritarren kontsulten erregelamendua.

Horregatik, udal Gobernuak beste bide bat irekitzea erabaki zuen, Espainiako Gobernuari baimena emateko eskatzea alegia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen duen bezala.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua.

“ Estatuko eta autonomia erkidegoko legediaren arabera, estatutuan autonomia-erkidegoari horretarako eskumena aitortzen zaionean, osoko bilkuraren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuak baimena eman ondoren, auzotarren intereserako berebiziko garrantzia duten udalaren eskumeneko eta toki-izaerako arazoei buruzko herri-galdeketa egin ahal izango dute alkateek, toki-ogasunari dagokion arazoetan izan ezik.

Estatuko Gobernuak, Mariano Rajoy buru zuela, ez zuen baimenik eman. Hala ere, uste dugu orduan lortu ziren sinadura guztiak lortzeko sortu zen mobilizazioa behar bezain garrantzitsua eta apartekoa izan zela asmo horri denboran eusteko, eta bitarteko guztien bidez kontsulta hori egiten saiatzeko. Beraz, Gobernua aldatu denez, une egokia da herri-kontsulta berriro aktibatzen saiatzeko.

Hori dela-eta, honako mozio hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Estatuko Gobernuari, herri-galdeketa egiteko baimena eman dezala, herritarrek esan ahal izateko ea Udalak udal-baliabideak erabili behar dituen zezenketetarako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean jasotzen den bezala.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea